

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

227. zenbakia

Data 2010-11-26

2 orria

4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa

GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK

1005/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa 1005/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren 42.1 artikuluan aipatzen diren gutxieneko kopuruak ordaintzeko moduak eta epeak ezartzen dituen.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

1.005/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren 42.1 artikuluan aipatzen diren gutxieneko kopuruak ordaintzeko moduak eta epeak ezartzen dituen.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduak, abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartuak, jasota dakar 42. artikuluan zein kasutan izango den zilegi zorren ordainketa geroratu edo zatikatzea bermerik aurkeztu gabe.

Hain zuzen ere, 1. apartatuan zatikapen sorta bat jasotzen da, eta bertan esaten da zatikapen horiek emango badira, beharrezkoa izango dela zatikatu nahi den zorraren gutxieneko kopuru bat ordaintzea aldeztu aurretik. Ondorio horietarako, 42. artikuluko horren 4. apartatuak dio Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarriko duela foru agindu bidez nola eta zer epetan ordaindu beharko diren gutxieneko kopuruak.

Bada, foru agindu honen xedea da ezartzea nola eta zein epetan ordaindu behar diren gutxieneko kopuru horiek.

Horren indarrez, hau,

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra.

Bat. Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duenak, 42.1 artikuluan aipatzen dituen zatikapen kasuetan, ondorengo modu eta epeak izango dira gutxieneko kopuruak ordaintzeko:

a) Banku helbideraketa, zorrak autolikidazioetatik datozenetan eta zatikapen eskaera bide telematikoz egin denean.

b) Banku helbideraketa edo entitate laguntzaileen bidezko ordainketa (Gipuzkoako Foru Aldundiak propio emandako ordainketa-gutuna aurkeztuta), zerga administrazioak ofizioz likidatutako zorrak direnean eta zatikapen eskaerak bide telematikoz aurkeztu direnean.

Diru sarrera entitate laguntzaile batean egiten bada ordainketa-gutuna aurkeztuta, ordainketa egiteko epea 3 egun baliodunekoa izango da aipatutako gutuna ematen denetik aurrera.

c) Entitate laguntzaileen bidezko ordainketa (Gipuzkoako Foru Aldundiak propio emandako ordainketa-gutuna aurkeztuta), zatikapen eskaerak bide telematikoz aurkeztu ez direnean. Ordainketa-gutuna errekerimendu bidez bidaliko zaio eskatzaileari.

Bi. Autolikidazioetatik datozen zorren zatikapen eskaerak bide telematikoz aurkeztu badira ordaintzeko borondatezko epean, zatikatu nahi den zorpeko zergaren araudian finkatutako epean zordunduko da ordaindu beharrekoa.

Salbuespenez, gutxieneko kopuruak ordaindun behar badira Errenta Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren edo Sozietateen gaineko Zergaren atxikipenak eta konturako sarrerak aitortu eta ordaintzeko azken epealdiko zorren zatikapenengatik, epealdi bereko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenetatik eratorritako ordainketen helbideraketekin batera zordunduko dira.

Ordainketak egiten badira zor den zergaren araudian ezarritako epeetatik kanpo, haien epemugak dagokien hilaren 10a edo 15a izango dira.

Hiru. Ordainketak egin behar badira entitate laguntzaileetan ordainketa-gutuna aurkeztuta, ordainketa pasabidearen bitartez ere egin ahal izango dira, abenduaren 11ko 1.074/2008 Foru Aginduak, Gipuzkoako Foru Aldundiko zuzenbide publikoko sarrerak ordainketa pasabidearen bitartez ordaintzea arautzen duenak, xedatutakoari jarraiki.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Zor gerorapenak edo zatikapenak ez badira Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamenduak 42.1 artikuluan adierazitakoak eta, hala ere, gutxieneko kopuru bat ordaintzea beharrezko egiten badute, foru agindu honetan xedatutakoa aplikatuko da.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2010eko azaroaren 19a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Departamentuko foru diputatua.

(8885) (13620)